

## E

## Arte Garaikideko Hiztegia

## Enblematika

Azalpen-sinbolo bezala erabiltzeko, hainbat zeinu jakinez baliatzen den forma espresibo bati ematen zaion deitura da hau. Erabilitako zeinu horiek, hau da, enblemak, esanahi eta ezaugarri finkotakoak izaten dira, eta kasu bakoitzean ezartzen dute zeinu-sistema murriztu bat, zeinuon gobernurako hierarkia beraiek ezarritik.

Honen gisako zeinu alegorikoen sistema bat bazegoen arte informala deitutako hartan, arte-espresioa hizkera indibidual zen neurrian bere interpretazio-gramatika propioa bait zuen, baina badago, berebat, enblematika arrunt gisan *Trivialkunst* (gauza arruntaren artea) deitutako artean ere; honek, hainbat organizatze-sistema konbentzional ezagunen (kirol-elkarteetako ezkontu, enblema erlijioso, elkarrekin oroindomina, etab.) instituziorako zeinu-egiturak ezartzen ditu, aukeratutako zeinu horiez egindako enblema bereiztaile bezala, elkarrekin bakoitzaren berezko izaeraren alderdi adierazgarriak grafikoki errepresentatzen dituzten egiturak alegia.

## Enkaustika

Honela esaten zaio enkaustu-pinturaren prozedurari. Koloreak argizartan urtuta ematen dira berotutako azalera baten gainean, honela geratuz eguratsaren kontra jarkikor.

## Environment

Duchamp-ek egindako *ready-madeekin* (1915), eskulturak galdu egin zuen ordurarte bere izaera baliozko eta murriztu zuena, eta bere ingurunean aurkieraren parte bat izatera etorri zen. Artistak berriz ere gogora ekarri zuen delako egitate lapidario hura, alegia objektu plastiko batek espazioan manejatze moduan oinarritu behar izaten dituela bere funtsezko ezaugarriak, eta horregatik eta horri esker sortzen duela *environment* (ingurune) delakoarekin artistikoki eratutako egitura espazial bat, ikuslea erabat inguratzen duen eta konfigurazio artistikoaren muinean txertatzen duen egitura bera. Hori dela eta, inguruneak berez tajutzen du ikuslearengan halako erreakzio mental bat eragin arazteko moduko errealitate bat. Bere funtsa honela determinatuz, beraz, haztamen, entzumen, usaimen eta ikusmeneko ahalmen sentzorialen zurgapen konplexu bezala, nabarmentzen da *environment* deitua modurik anitzenetan erabil daitekeen printzipio metodiko konfiguratzailer gisa.

Hala ikus dezakegu, adibidez, Kienholzen *environment* probokatzailerak, «kontu handiarekin hondatutako eta narriatutako ob-

jektuak konbinatzen dituen kontzeptualki formulatutako anekdotekin, honela atentzioa deitzeagatik kontsumoaren erasoan aurrean izaten den portaera sozial absurdoaren tragediaren gainean». Shock-environment probokatzaileraren bestekaldean aurkitzen dira George Segal-en espazio besselakoak, eguneroko bizimoduaren izaten den portaera, gehienetan herabeari, egindako monumentu jela baino hotzagoak. Funtszekoenetara murriztutako mintzaira batez baliatzen da Segal distantzia konfinagarriak sortutako egunerokotasunaren bakantzekeinu honi buruzko kontzientzia pizteko. Eguneroko erabiltzeko traste eta eskaiolazko figuraz entsanblatuta, Segalen *environment* hauek, modelu biziak bakoitza beren ekin-tza-egoeretan hartutako molde-hustuketa garbi diren hauek, momentuaren beraren errepresentazio intimoa, sakona, izan nahi dute, eta horien funtsezko edukina ekin-tzaren beraren gestualismoan eta esperientzian sustraitzen da. Bere eskaiolazko irudien, beren gestikulazioan bizitzaz beteta dauden irudi horien kolore zuri bitxiak, giroaren egoerari halako distantziako sententzia bat ematen dio, alderdi akzidentalak txikiagotzeko eta, bestalde, ekin-tza baten subjektu-objektuen arteko erlazio baldintzatzailea bipilki baieztatze balio duena.

## Errealismoa

Behin eta berriro etengabe azaltzen ari den fenomeno denez, oso zaila gertatzen da errealismoa arte plastikoetan behin betirako definitzea, nabardura-modu anitzeko azaltzen bait da azaldu ere. Aurki daitezke elementu errealistak bai antzinako errepublika erromatarrean eta berdin XV. mendeko bigarren erdialdean ere, pentsakera burgesa eta errealismo mundutarra halaxe sartu bait ziren bapatean ordurarte kristautasunaren ildotik eta modu trazezko bideratuta zegoen mundu intelektual hartan. Aurrerago aurki daitezke arrasto errealistak XVII. mendeko pintura holandarrean ere, baina batez ere, XIX. mendean Gustave Courbetekin, garai hartan fotografiaren asmakizun hark eragiten eta bultzatzen bait zuen errealitatearen esperientzia zehatz bat izateko desira.

Koadroaren barruan errealitatea asimilatzen saiatzen da errealismoa, izan ere asmo bezala hartzen bait du errepresentazio objektiboaren bitartez, koherentziak eta marka ezaugarrienak atzitzea eta, beraz, naturalismoaren mugen barruan geratzea.

Errealismoaren joera estilistiko ugari ekarri du XX. mendeak berekin, baina denek ere «errealista» kontzeptua errepresentazio objektiboari aplikatzen jarraitzen dute, arte abstraktuari buruz mugak jarritik. Oraingo

abangoardiako korrante estilistiko berri-errealismoaren kontzeptu klasikoarekiko lotura, hain zuzen errealismo fotografiko edo hiperrealismo deitua, bera nabarmentzen bait da fotografiari egokitutako gaitzaketagatik eta bere autentikotasun dokumentalagatik. Gaur egungo errealismo-modu honetatik bereiztekoak dira, bestalde, arte politikoki koprometituen beste errealismo aktibista eta leihatia eta errealismo sozialistaren estilo patetikoki idealizantea, «isladaren» teoria leninista oinarrituz, etorkizuneko gizarte komunista ideal baten irudija jartzen duena beste guztien gainetik.

Errealismo berria (*nouveau realisme*)

Hogeitamarreko urteen bukaera aldera Pierre Restany kritikari frantsesak programatikoki martxan jarritako korrante artistikoa da, dada mugimenduaren berrikuntza asmatan sortu zena. Errealismo berriak kontrakorrante bat sortzen zuen, orduan nagusi zegoen abstrakzio liriko-informal eta konstruktibistaren ondoan, eta arte objektualaren eta ekin-tzako artearen aldera makurtzen zen nagusiki, *happening* moduan eta materialen *assemblage* moduan.

Pariseko errealismo berriaren zirkulu murriz horretakoak ziren Yves Klein, kolore-ekin-tzak egiten zituena (beren gorputzak pinturaz igurtzi eta, ondoren, telaren gainean zilipurdika ibiltzen ziren neskatzak), César eta Chamberlain, automobilen karrozeria prentsatuarekin egindako metak egiten zituztenak, Christo bere pakete-ekin-tzekin, eta Tanguely bere antimakina absurdo eta zalapartatsuekin. Errealismo berriak eragin handia izan zuen hasierako garaitako pop artean, eta, bere forma konbinatu bariatuekin, bultzada handia eman zion arte objektualari.

(Karin Thomas: *Dumont's kleines Sachwörterbuch zur Kunst des 20. Jahrhunderts* hiztegiaren itzulpena)

Antonio López García, "Mis Padres".  
Oleo sobre lienzo, 88 x 106 cms. 1956.

